



S-125. Lurpeko trenen erabiltzaileentzako aparkalekua.



S-126. Autobus-erabiltzaileentzako aparkalekua.



S-127. Autobide edo autobia bateko zerbitzugunea.

## ORIENTAZIO-SEINALEAK

### AURRESEINALEAK

Irteera zein distantziatara dagoen jakinarazten dute.

Hondoaren kolorea da zirkulatzeko ari den errepidearen eta errepide berriaren arteko errepiderik garrantzitsuenari dagokiona.

#### Aurreseinalea:



S-200. Biribilgunea. Biribilguneke irteeren norabideak.



S-220. Errepide arrunt baterantzko norabideak.



S-222. Autobide edo autobia baterantzko norabideak.



S-222 a. Autobide edo autobia baterantzko norabideak, eta norabide propioa.



S-225. Autobide edo autobia batean, edozein errepidetarantzko norabideak.

### Galtzadaren gaineko seinaleak

- Errepide arruntean:



S-230. Errepide arruntean, beste errepide arrunt baterantz.



S-230 a. Errepide arruntean, errepide arrunt baterantz, eta norabide propioa.



S-232. Errepide arruntean, autobide edo autobia baterantz.



S-232 a. Errepide arruntean, autobide edo autobia baterantz, eta norabide propioa.

- Autobidean edo autobian:



S-235. Autobidean edo autobian edozein errepidetarantz.



S-235 a. Autobidean edo autobian, edozein errepidetarantz, eta norabide propioa.



S-242. Autobidean edo autobian: oso hurbil, bi irteera, edozein errepidetarantz.



S-242 a. Autobidean edo autobian: oso hurbil, bi irteera, edozein errepidetarantz, eta norabide propioa.



S-250. Ibilbidearen aurreseinala. Zer ibilbide jarraitu behar den geziak adierazten duen norabidea hartzeko.



S-260. Erreien aurreseinala. Hurrengo bidegurutzean baimenduta dauden norabide bakarrak.

• Zerbitzuguneak



S-261. Errepide arruntean.



S-263. Autobidean edo autobian, irteera partekatua duena.



S-263 a. Autobidean edo autobian, irteera eksklusiboa duena.

• Zerbitzu-bidea




S-264. Errepide arruntean.



S-266. Autobidean edo autobian, irteera partekatua duena.



S-266 a. Autobidean edo autobian, irteera eksklusiboa duena.



S-270. Oso hurbileko bi irteeraren aurreseinala.



S-271. Autobide edo autobia bateko zerbitzugunearen aurreseinala

NORABIDE-SEINALEAK

Berehalako irteeraren norabide-seinaleak irtetzen den bidearen kolorearen hondoa dute.



S-300. Errepide arrunt bateko ibilbidean dauden herriak.



S-301. Autobideko edo autobia bateko ibilbidean dauden herriak.



S-355. Berehalako irteera, autobide edo autobia baterantz.



S-366. Berehalako irteera, errepide arrunt baterantz, eta norabide propioa.



S-368. Berehalako irteera, autobide edo autobia baterantz, eta norabide propioa.

S-373. Berehalako irteera bi, elkarrengandik oso hurbil, errepide arrunt baterantz, eta norabide propioa.



S-375. Berehalako irteera bi, elkarrengandik oso hurbil, autobide edo autobia baterantz, eta norabide propioa.



## ERREPIDEAK IDENTIFIKATZEKO

### SEINALEAK



S-400. Europako ibilbidea.

## A-8

S-410. Autobidea edo autobia.

## AP-1

S-410 a. Ordainpeko autobidea.

## N-644

S-420. Estatuko Sare Orokorreko errepidea, autobidea edo autobia ez dena.

## A-133

S-430. Autonomia-erkidegoko lehen mailako errepidea, autobidea edo autobia ez dena.

## GI-3210

S-440. Autonomia-erkidegoko bigarren mailako errepidea, autobidea edo autobia ez dena.

## BI-3438

S-450. Autonomia-erkidegoko hirugarren mailako errepidea, autobidea edo autobia ez dena.

## KOKAPEN-SEINALEAK



S-500. Herri-sarrera. Herriko arauak aplikatzen hasiko dira.



S-510. Herri-amaiera. Herriko arauak aplikatzeari utziko zaio.



S-520. Bideko gune berezia.



S-540. Probintzia-muga.



S-550. Autonomia-erkidegoaren muga.

**Ikusmenaren bidez hautematen da behar bezala gidatzeko behar den informazioaren % 90a.**













## ABIADURA-LEHIAKETAK

Debekatuta dago bide publikoetan abiadura-lehiaketak egitea, agintariak baimena ematen ez badu.






**Baimendu gabeko lasterketa edo lehiaketetan parte hartzeak 6 PUNTU galtzea ekar dezake.**

## ABIADURA GENERIKOAK

### HERRITIK KANPO

IBILGAILUAK	BIDEAK	AUTOBIDEAN AUTOBIAN	BIDE ARRUNTEAN
Atoirik gabeko turismoek Motozikletek Motozikleten antzeko hiru gurpileko ibilgailuek ≤ 3.500 Kg GMBa duten autokarabaneak Pickupak		 	 
Autobusek Ibilgailu misto moldagarriak Turismo eratorriak		 	 
Kamioiek Trakzio-kamioiek Furgonetak > 3.500 Kg GMBa duten autokarabaneak Ibilgailu artikulatuek Automobil atoidunek Gainerako ibilgailuek		 	 

### BESTE IBILGAILUEN ABIADURAK

Ibilgailu bereziek	<ul style="list-style-type: none"> <li>Ez badute freno-argirik</li> <li>Atoia badaramate</li> <li>Motokultoreak badira</li> </ul>	
	60 Km/h gainditzen badute	
	Gainerako ibilgailu bereziek	
Zikloek Ziklomotorrek (bi eta hiru gurpil eta kuartriziklo arinak) Mugikortasun urriko pertsonentzako ibilgailuek		
Hiru gurpileko ibilgailuek Kuartrizikloek		

## SEINALEZTATU GABEKO BIDEGURUTZEETAN PASATZEKO LEHENTASUNA

Lehentasuna arautzen duen seinalerik ez badago, **eskuinetik** hurbiltzen diren ibilgailuei utziko zaie pasatzen.

Salbuespen gisa, honela zirkulatzen ari diren ibilgailuek dute pasatzeko lehentasuna:



- **Errail** gainean doazenek, gainerako erabiltzaileen aurrean.



- **Autobide edo autobian** doazenek, sartu nahi dutenen aurrean.



- **Zolatutako bide batetik** doazenek, zoladurarik gabeko beste batetik datozenen aurrean.



- **Biribilgune** barruan doazenek, bertara sartu nahi dutenen aurrean.


## BIDEGURUTZE BEREZIAK: PLAZAK ETA BIRIBILGUNEAK

### ZIRKULAZIO BIRAKARIKO PLAZETAKO PORTAERA

Zirkulazioa elementu baten inguruan biratuz egiten da, eta ezkerrera uzten da beti elementu hori, kontrako seinalerik ezean. Horietan, lehentasuna beste edozein bidegurutzetan bezala arautzen da.

### BIRIBILGUNEETAKO PORTAERA

Biribilgune batean sartzeko, lehentasuneko seinaleak errespetatuko dira.



Lehentasun-seinalerik ez badago, barruan zirkulatzen ari diren ibilgailuei pasatzen utziko zaie.

## PUNTU-HOBARIA

Puntuak kentzen dituen arau-hausterik egiten ez duten gidariek puntu gehigarriak jasoko dituzte, gehienez **15 puntu** izan arte.



Egun bakar batean **gehienez 8 puntu** gal daitezke, arau-haustea oso astuna denean izan ezik; kasu horretan, dagokion puntu-kopurua galtzen da.

## PUNTUAK PARTZIALKI EDO GULTZ BERRESKURATZEA

- 12 puntuak berreskuratuko dira, baldin eta 2 urtean ez bada puntuak kentzen dituen arau-hausterik egin (arau-hauste astunak edo oso astunak diren kontuan hartu gabe).
- Era berean, gehienez lau puntu berreskuratu ahal izango dituzte, 10 orduko ikastaroa gaindituz. Ikastaro hori bi urtetik behin egin ahal izango da (gidari profesionalak, urtean behin).

*Gidatze seguru eta efizienteko ikastaroak gainditzea, ezarritako baldintzak betez gero eta saldo positiboa izanez gero, bi puntu gehigarriekin sarituko da, gehienez hamabost puntu izan arte, eta mota bakoitzeko ikastaro bat gehienez bi urtez behin egin ahal izango da.*

## BAIMENA EDO LIZENTZIA BERRESKURATZEA

Puntu guztiak galtzeagatik galdutako baimena edo lizentzia berreskuratzeko, 20 orduko ikastaroa eta azterketa teoriko bat gainditu beharko dira Trafikoko Burutzan.

Puntu guztiak galtzean, ezingo du beste baimen bat lortu sei hilabete igaro arte (hiru hilabete, gidari profesionalentzat).

Epe horiek bikoiztu egingo dira, hurrengo hiru urteetan puntu guztiak berriro galduz gero.

### PUNTUAK GALTZEA DAKARTEN ARAU-HAUSTEAK

#### 6 PUNTU

Gidatzea:

- ✓ Arnastean botatako airean 0,50 mg/l-ko tasa gaindituz (bi urte baino gutxiagoko antzinatasuna duen baimenaren titularrak eta profesionalak, 0,30 mg/l).
- ✓ Organismoan drogak daudela.
- ✓ Ausarkeriaz, ezarritakoaren kontrako noranzkoaren zirkulatzea edo baimendu gabeko lasterketa edo lehiaketetan parte hartzea.
- ✓ Radarrak edo zinometroak inhibitzeko gailuak edo zirkulazioa zaintzeko sistemek zuzen funtzionatzea eragozteko beste edozein mekanismo instalatuta dituzten ibilgailuak.



## GIDARI-POSTUAREN EGOKITZAPENA, AGINTEAK ETA DOITZEAK

Gorputz-jarrera egoki batek aukera ematen du ustekabeen aurrean hobeto eta azkarrago jarduteko.

### ESERLEKUA

Honela erregulatuko da:

- Pedalak zapaltzean, zangoak pixka bat tolestuta geratu behar dira.
- Haren altuerari esker, behar bezala ikusi ahal izango da bolantearen gainetik.

### BIZKARRA

- Gorputzeko bizkarra eserlekuko bizkarraren kontra jarrita dagoela besoak luzatzean, aginte guztietara erraztasunez iristeko moduan egon behar da.
- Besoek pixka bat tolestuta geratu behar dute.

### ATZERAISPILUAK

Arau orokor gisa, karrozeriadun ibilgailuek honako hauek izango dituzte:

- **Barneko atzeraispilu** bat, nahitaezkoa. Hautazkoa izango da atzetik arazuko ikuspena ahalbidetzen ez duenean; horrelakoetan, ezkerreko kanpokoak jarri behar dira.
- **Ezkerreko kanpoko atzeraispilu** bat, nahitaezkoa.
- **Eskuineko kanpoko atzeraispilu** bat, hautazkoa.

Atzeko leihoetan lamina itsaskorrak edo gortinak onartzen dira, soilik kanpoko bi atzeraispilu eramanez gero.

Doitzea ibilgailua ibilgetuta dagoela egingo da, eta, ahal izanez gero, lur lau eta zuzenean.



### OINEZ ERAGINDAKO AGINTEAK

- Enbragea (ezkerreko oina).
- Frenoa (eskuineko oina).
- Azeleragailua (eskuineko oina).



### ESKUZ ERAGINDAKO AGINTEAK

- Bolantea.
- Aparkatzeko frenoa.
- Abiadura-palanka.



### BOLANTEA

Honela heldu behar zaio:

- Kanpoaldetik.
- Irmotasunez baina zurruntasunik gabe.
- Biratzean eskuak gurutzatu gabe.

Eskuen posizio egokia erloju bateko orratzek hirurak laurden gutxi edo ordu biak hamar gutxi markatzearen parekoa da.